



## Nola erabili?

---

### 3. Instalatu “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioa jatorrizko sistema eragilea ezabatuta.

Horrela, zure ekipo informatikoan “HARROBIX” sistema eragilea soilik izango duzu.

Horretarako, egin honako hauek:

- “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren [ISO fitxategia jaitsi](#) eta USB abiarazle batean bihurtu. Horretarako, “Rufus”, “Yumi”, “UNetBootin” edo “Linux Mint” moduko GNU/LINUX sistema eragile gehienek duten “USB irudi-idazlea” aplikazioen bat erabil dezakezu.
- Abiarazi zure ekipo informatikoa USB unitatetik (“BIOS”-ean abiarazte-ordena aldatu beharko duzu; horretarako, ordenagailua itzalita dagoela, USB abiarazlea sartu eta, piztean, abiarazte menua (“boot menu”) agertzeko, hainbat segundotan zehar, sakatu > “F8” (edo “F9” edo “F10” edo “F11” edo “F12”) abiarazte-menua agertu arte, edo sakatu > “Supr” (edo “F2”) “BIOS”-ean sartzeko.
  - “BIOS” > “BOOT” atalean, aldatu > abiarazte-ordena (“boot order”) > jarri lehenengo aukera gisa honako hau:
    - “UEFI: SMI USB DISK”

Zure ekipo informatikoa USB unitatetik abiaraztean, aukeratu honako hau:

- “Boot Live system” > “(initramfs) /cow format specified as ‘overlay’ and no support found” agertzean, sakatu > “Ctrl” “d”
- “Hasi saioa” leihoan, sartu > “user”/“Us€r” saioa
- “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioa instalatzeko, sakatu > “Instalatu HARROBIX” abiarazlea > “user(r)en pasahitza:” > “Us€r”
  - “Ongi etorri” leihoan, sakatu > “Euskara” > “Jarraitu”
  - “Teklatuaren diseinua” leihoan, sakatu > “Spanish” > “Jarraitu”
  - “Multimedia kodekak” leihoan, sakatu > “Jarraitu” > “ubi-prepare crashed” akatsa agertzean, sakatu > “Continue anyway”



## “HARROBIX” 2022-2023 BERTSIOAK



- “Instalazio-mota” leihoan, sakatu > “Hustu diskoa eta instalatu Systemback Live” > “Jarraitu” (KONTUZ, disko gogorraren eduki guztia ezabatuko da)
- “Non zaude” leihoan, sakatu > “Madrid” > “Jarraitu”
- “Nor zara” leihoan, sakatu > “Zure izena:” > “user” > “Aukeratu pasahitza:” > “Us€r” > “Jarraitu”
- Instalazioa bukatu ondoren, “Instalazioa burututa” leihoan, sakatu > “Berrabiarazi orain”
- “Hasi saioa” leihoan, sartu > “user”/“Us€r” saioa
- Ezabatu “Instalatu HARROBIX” abiarazlea
- Instalatu eguneratzeak, horretarako, sakatu > “eguneraketak” abiarazlea
- Instalatu “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren aplikazio sorta; horretarako, sakatu > “instalazioak” abiarazlea
  - **“HARROBIX\_MKT”** bertsioan > instalatu “Davini Resolve” aplikazioa; horretarako, zabaldu “davinci” karpeta eta jarraitu “davinci instalatzeko pausoak”
- Berrabiarazi
- Ekipo informatikoa abiaraztean, “Hasi saioa” leihoan, zabaldu > “user” administratzailea ez den beste saioen bat; adibidez, “mss1”/“1617@M\$\$” saioa